



• DEIALDIAREN OINARRIAK •

Koordinatzailea da:

Bultzatzaileak dira:

KATAPULTA
PLATAFORMA

BW
Bereizitako
Programak


GIPUZKOA
Kultura

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren “**Katapulta Tour Gipuzkoa**” musikako eta formatu txikiko arte eszenikoen proiektuei laguntzeko Programak Hamaikagarren edizioan parte hartuko duten artistak hautatzeko deialdia ireki du. Edizio hori Gipuzkoan egingo da, 2026 urtearen zehar. Deialdiak lehentasunezko 3 helburu ditu:

- Gipuzkoako talentua musikan eta arte eszenikoetan nabarmentzea eta bultzatzea —bereziki, gazteriari—.
- Gipuzkoako eszena dinamizatzen laguntzea, klubei eta antolatzaileei lagunduz.
- Prestakuntzaren eta saiakeraren alde egitea, profesionalizazio handiagoa lortzeko bide gisa.

Hartzaileak eta estiloa:

Deialdia artista profesional berriei edo erdi profesionalei zuzenduta dago, beren karrera musikan eta arte eszenikoetan profesionalki garatzeko interesa dutenei, eta musika-proposamenak (Pop, Rock, Folk, Electrónica, Hip-Hop eta antzeko estiloak) eta formatu txikiko arte eszenikoen proposamenak (mikroantzerkia, bakarriketak, performancea eta magia) onartzen dira.

Proposamenek artisten jatorrizko lanak edo artistentzat sortuak izan behar dituzte.

Proposamenak arlo desberdinetako teknikari eta profesionalek osatutako epaimahaiak hautatuko ditu.

Hautatutako proiektuei honako hauek eskainiko zaizkie:

- **Lau emanaldi** Gipuzkoako hainbat gune edo jaialditan. Horietako bat Kutxa Fundazioaren Kluba aretoa da.
- **500 euro garbiko konpentsazio ekonomikoa emanaldi bakoitzagatik.**
- **Artista edo proiektua sustatzeko bideo** baten grabaketa.
- Musika Bulegoarekin lankidetzan egingo den **komunikazio eta sustapena, eszenografia, produkzioa, ekonomia, fiskalitatea eta jabetza intelektualak prestakuntza programan** doan parte hartzeko aukera emango zaie.

Kutxa Fundazioak Tabakaleran duen espazioan aurreikusitako obrak direla eta, edizio honetan ezin da entsegu-guneetarako sarbiderik eskaini aurreko edizioetan bezala, nahiz eta aukera horri berriro ekitea aurreikusten den lanak amaitu ondoren.

Hautatzeko irizpideak:

Aurkeztutako proposamenen artean 10 proiektu hautatuko dira, irizpide hauen arabera:

- Gipuzkoan errolatuta dauden artistei eta 30 urtetik beherakoei lehentasuna emango zaie.
- Beren kalitateaz gain, artista parte-hartzaileen ibilbidea eta proiektzioa ere baloratuko dira.
- Proposamenen hizkuntza-eskaintzan eta parte-hartzaileen generoan oreka ezartzen saiatuko da.

Proposamenak **2025eko azaroaren 7tik Abenduaren 8arte aurkeztu beharko** dira [esteka honetan](#).

Hautatutako proposamenen izenak otsailaren 10a baino lehen argitaratuko dira prentsaurrekoan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren webguneetan.

Parte-hartzaileek Programan parte hartzeak dakartzan betebeharrekin klausulak onartu beharko dituzte. (zehazteke)

Emandako datu pertsonalak, irudia eta ahotsa barne, programaren sustatzaileei lagako zaizkie: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa Fundazioa, eta Buenawista Prolleckziom's Kultur Elkartea. Parte-hartzaileek baimena ematen dute identifikazio-, ahots- eta irudi-datuak, artxibo grafikoak doan erabiltzeko, informazio, sustapen eta kontserbazio historikorako, web orrietan, sare sozialetan eta beste komunikabide batzuetan argitaratzeko, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Buenawista Prolleckziom kultura-elkartearen artxibo historikoan parte hartzeko ere. Parte-hartzaileen irudiak datu pertsonaltzat hartuko dira eta izena emateko formularioan aurkeztutako gainerako datu pertsonalen tratamendu bera izanen dute.

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea.